

Apaingela

Gorputza zaintzea, apaindura pertsonala, eguneroko jarduera zen gizon-emakume aberatsen artean. Ukendu, lurrin eta kosmetikoak edukitzeko beirazko ontziak, hezur edo harrizko paletak gaiak nahasteko, gai horiek aplikatzeko hezur, brontze eta metal noblezko espatulak eta beste objektu asko sartzen ziren apainketari eskainitako tresneria multzoan.



1.- Emakume hau *ornatrix* edo ile-apaintzailea da. Baina *ornatrices* horiek orrazteko trebetasunaz gain, depilazio- eta makillaje-teknikak ere ezin hobeki jakin beharra zituzten. Emakumeek zuritu egiten zituzten bekokia eta besoak, ardo-hondarrez koloreztatu masailak eta ezpainak, bai eta begien ingurua zein betileak nabarmendu errautsez edo antimonio beltzez. Gizonek *tonsor* edo bizarginarenean egiten zuten bizarra, aski kontu arriskutsua berau. Izan ere, gizon askok pintzak

edo depilatzeako kremak erabiltzen zituzten bizarra egiteko. Hadriano enperadoreak, K.o. II. mendean, bizarra utzi zuenean, garaiko gizonek gogotsu bereganatu zuten molde berri hura eta ohiturak 150 urte inguru iraun zuen, harik eta berriro ilerik gabeko aurpegiak modan jarri ziren arte.

2.- *Domus* edo hiriko etxe nobleetako hormak guztiz apaindurik egon ohi ziren. Kolore asko eta irudi figuratiboak agertzen ziren horma-margo haietan.

3.- Orrazkerak aldatuz joan ziren erromatar aroan zehar: Errepublika garaian aski soilak baziren ere, Inperio garaian txirikorda, motots edo tupe ezin korapilatsuagoak erabiltzen zituzten. Orrazkerari eusteko eta edertzeko forma askotako orratz bereziak erabiltzen zituzten (*acus crinalis*). Ohikoenak hezurrezkoak ziren, baina baziren brontzez edo metal noblez eginikoak ere, irudiz apainduak haietako batzuk.

4.- Mantuari *fibula* edo kisketa baten bidez eusten zioten; gehienbat, brontzezkoak ziren, urrez xafaztaturik horietariko batzuk, eta metal noblez eginak beste zenbait. Euskal Herrian eginiko kisketen artean, batzuk kanpotik ekarritako ereduak kopiak ziren, eta bertakoak beste batzuk. Artilea eta lihoa ziren oihal tradizionalen gaia, baina Indiatik zetorren kotoia ere erabiltzen zuten, bai eta zeta ere, itsasoz edo lehorrez Persiako golkotik ekarria.

Arropa tindatzeko gaiak mineralak eta landareetatik aterak izan zitezkeen eta hainbat kolore emateko balio zuten: zuria, beltza, urdina, gorria... Purpura – Mediterraneoko itsas barakuilu batzuetatik erauziriko kolorea– zen tindagairik preziatuena. Feniziarrek aurkitu zuten, eta gero Asia Txikira eta Greziara pasa zen. Erroman, enperadorearen kontrolpean zegoen haren manufaktura eta purpuraz tindatzen zituzten senatarien togak, jeneralen mantuak bai eta enperadorearen beraren toga ere.

5.- Ispiluak brontze zilarreztatuz egiten zituzten.

6.- Bitxien artean, eskumuturrekoak, eraztunak, zintzilikariak eta belarritakoak erabili zituzten. Eskumuturrekorik ohikoenak brontzezkoak ziren, lauak edo zenbait ebakiz apainduak, nahiz eta hezurrez edo beira-oreaz ere baliatzen ziren. Eratzunetan burdina zen gehien baliaturiko gaia, baina, horretaz gainera, beira-orea, brontzea eta metal nobleak ere erabili zituzten. Zintzilikariak hezur, brontze edo metal noblez eginik zeuden, eta koloretako beira-orezko aleak zituzten osagarri. Belarritakoak zilar, urre eta brontzezkoak ziren. Erromatarren garaiko bitxi asko kontserbatu dira eta hainbat museotan ikusgai daude; bisitatxo bat egitea gomendatzen dizugu.